

# Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

10/6/18 | 326

- Txintxarri abesbatzaren 50. urteurrena
- Telebista eredu berriak
- San Joanetako bandera berriro jokoan
- San Joanetako gehigarri berezia
- Agenda, horoskopoa, zerbitzuak...

Tolosak haurreskola berria iango du





Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.  
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,  
 6-behea.  
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
 Telefonoa: 943 655 004  
 Faxe: 943 654 983  
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com  
 Webgunea: www.galtzaundi.com  
 Koordinazioa: Leire Zubeldia.  
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Gorka Otaegi,  
 Amaia Goikoetxea Orbegozo.

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegiartxe, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igar-tua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague  
 Banatzaileak: Olatz Garmendia  
 Juankar Arregi  
 Idazkaria: Edurne Mendi  
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.  
 Diseinua: Zigor Agirrezabala  
 GOIKIK  
 Azala: Galtzaundi  
 Inprimategia: Antza.  
 Tirada: 5.000 ale  
 Lege gordailua: 55-906/91  
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
 Diputación Foral de Gipuzkoa



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



KULTURA SAILA  
 Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza  
 diruz lagundutako argitalpena



## Erreportaia: Tolosako haurreskola Berazubitik Plaza Berrira

Zortzi hilabeteko haurdunaldia izango du Tolosako Abastos eraikin zaharrak. Datorren otsailerako, Tolosako haurreskola amaituta egotea espero da. Udala haurreskola Abastos-en egokitzea bultzatu duena, Berazubin dagoen egungo eraikinaren egoera txarra da. Lekualdatzearen abantaila gisa, haurreskola berria herriaren erdigunean kokatuko dela eta bere funtzioa betetzeko ekipamendu berrienekin atonduko dela aipatu dute agintariek. Desabantailak ere baditu ordea: seme-alabak haurreskolan uztera datozen gurasoek autoa non utziko duten esaterako zalantza handia da. Eraikin berriaren nondik-norakoak jasotzeaz gain, Berazubiko egungo haurreskolaren egoera ezagutu nahi izan du Galtzaundik.

8-11. orrialdeak

« Manex Elola, Unai Iraola, Gari Zubillaga, Martzel Navarro eta Eñaut Zabala. Azken bi hauek gaztetxoak dira oraindik, eta hasieran nahiko urduri zeuden, ez baitaude horrelakoetara ohituta, baina beraientzat ere oso esperientzia polita izan da.»

Elkarrizketa: Ziklox Garaialde

14-16. orrialdeak

	Iritzien leihoa: Andoni Egia eta Eider Elduainen	4-5
	Normalizazioa: Hara, euskaraz zergatik ez? (II)	6-7
	Eskualdeko albisteak: Txintzarri abesbatzaren 50. urteurrena	12-13
	Zintzilik: Telebista eredu berriak	17
	Kirol saltsa: San Joanetako bandera berriro jokoan	18-19
	San Joanetako gehigarri berezia	



Andoni Egia

EHNE sindikatuko Tolosaldeko koordinatzailea

### Aupa jende!

Zemuz gabiltze? Espero det gu-txiñez atzo baño okerrago ez eotea, eo hobetzen bintzat, honezkeo nai letzen diazuenak (espero et bakan batzuk izatea) esango zue ze idatzi hasiera "betikok" itteittuten, bai bai, halaxe da, daona, ni ez naiz idazle usteko baserritarra baizik.

Ta gaur halaxe hasiko naiz, gure euneroko eromen hon-tan mantentzen gaituzten elementuak miatzen, betire nere uste xingle batetik eta iritzi bat aireratzeagatik, az-kenen artikulua hau nolabait osatu beharko!

Nik ustet hemen denak gaudela siñestarazita, bizi hontan gauzak aurrea in dula, gauzak errexago it-teiela, mekanikoki, askoz prestatugok gaudela, tek-nologikoki mundun bes-talden bizi danakin atxalde baten bakoitzen bizie alka-rrri kontatu ta ligatzeaño-re allatzen geala, naiz ta aldi

beren etxekonekoi euno-nik-e ez esan. Orduko 200 km errex itteittuen kotxek dauzkeula, naiz ta geo 100 km/orduko multa jarri eo aparkatzeko denboan dirue lapurtzen diguen, eta ko-txe bat laneako eta bestea paseatzeko euki. Eunero baskula gañen gure kilok beidatzen ibiltzen geala, munduko gimnasioik one-nak ditteula, gure ipurdik gorrak mantentzeko, titiri goien eusteko, txokolatze-ko adominalak nokie altxa-takon eakusteko, gu denai zaindu ta gustokoa ez danai egurre emateko-re polizi in-

dar armatuak ditteula, pro-tekzioko etxe batzuk "toka-tu" itten zaizkigula, naiz ta geo ordaintzeko urte mor-do baterako bankuarekin ezkondu.

Gure ideia apurrek kon-trolatu eta komeni zaien bezala ibiliko dittuen tele-bista handi, plano.... ditteu-la, bertan azalduko digue une oro nolakok izan behar deun, zer litzaken pertsona normala izatea. Nola modu berdiñek erabillita arma batzuk terrorismoa diren eta besteak demokratikoak, nola herri bateko ehundaka lagun kartzeletan eta de-seherrian eon eta ez dala ezer pasatzen sinestarazten diguen, eta dena "normals-taun" baten segitzen dula esaten duen.

Baserritarrak ere mun-du honetan erabat sartuta gaude, ni aurrena naizela gañea, ta hau dena esan-da ta oain gehio okurritze etzaitela kontun hartuta, esan nai nukena azken ba-ten erabat erabilit eta kon-trolatuta gauden monigote batzuk besteik ez geala da.

Krisi hau-re asmakizun huts bat da, eo aberats gu-txi batzuk hartutako erabaki batzuen ondorioa baño ez. Egoera honi ematen zaion erantzuna-re arazo honen barrun daola esan ni nuke, alare aberats hoik bakiela erantzune zein izango dan, manifak, grebak, paroak.. eta beste zenbait ekintza, nei pertsonalki ondo irudi-

tzen zaizkitenak baño kri-sian sortzaileei bate mellaik ingo eztien erantzunak.

AHT-arekin-e berdiñe dala esango nuke: proiektue in aurretik bakie eran-tzune zein izango dan, manifa, martxa, itxialdik... beste zenbait ekintza txal-logarri, baño proiektua eztu horrek gelditzen, aurrera seitzeu, dena proiektun bar-run diseiñatuta zeolako eta kalkulatuta, ta arrazoia hoi-xe da bi kasu hauetan eta gehigotan: aurretik jakinak dien erantzun hoikin ez die-la egoerak iraultzen!

Esan hau dena idaztekon tratoren naillen bitarten etortzen zaizkiten ideia batzuk baño ez dittutela paperen gañen jartzen, ez diotela iñorri miñik eman nai baño pentxarazi bai ta burun daukean errota hori gehio erain behar dieu-la esan-re bai. Nik eztakit zein dan soluzioa, eztauket formula milagrosoik baño erantzun hoiri danai beste zerbait eantxi behar zaie-la dudik eztauket, bestela bizi guztin monigote mun, gure mundun sartuta, era-bat erreta eta anesthesiatuta seittuko deu.

Bukatzeo euneroko ero-menetik ateata zaudetenei eo iñalatan hai zeatenai zo-rionak, ta euneroko erome-nan kontra ai zeaten guz-tii-re zorionak eta eskerrik asko bene-benetan. Aupa zuek!!!

Animo Maite, eutsi goiei!!

## Emakumeok plaza<sup>ra</sup>!

Ziur baietz, baina, festa giroan bestelako eredu batzuk izanda ere, festa giro ederra izango dela sinetsita gaude gu. Guztiok barnebilduko gaituen festa, eta emakumeok ere plaza erdian gure erreferentziak topatuko ditugun festa. Hortik jai parekideen aldarrikapena.

Behar horri erantzutera eta kultur gintzan eta sorkuntzan dabiltzan euskal emakumei lehio bat zabaltzera dator Bilgune Feministak martxan jarri duen ekimena: emakumeok plazara.

Urteko askotan emakumeok oztopo ugari izan ditugu kultur eremuan parte hartzeko.

kaintzen ditu. Kultur eremuan espazio ugariatan parte hartzen duten emakumeen (antzerki-lariak, musikariak, ipuin kontalariak, margolariak, bertsolariak...) baliabide zerrenda da. Honela, kultur eragile, festa batzorde, txosna batzorde eta abarrek bertara jo ahal izango dute beraien egitarauak osatzeko. Talde eta norbanakoen deskribapena eta kontaktuak eskaintzeaz gain, erakusketa birtualak, agenda eta ikuspegi feministatik kulturari buruz sortutako dokumentuek ere bere espazioa dute.

Baina zerrenda aberatsa izan dadin, emakume sor-



Lanaldi bikoitzak edota guk egindako lanei garrantzia gutxiago eman izanak kultur arloan ere bigarren plano batera zokoratu gaitu. Egoera hau gainditzeko bere alea jartzera dator Emakumeok Plazara ekimena.

[www.emakumeokplazara.org](http://www.emakumeokplazara.org) orriak aukera anitzak es-

tzaileek bertan bere izena ematea ezinbestekoa da. Eta horretarako deia egiten diegu kultur eremuan dabiltzan eskualdeko emakumei. Horretarako, web orrian sartu eta apuntatzeko fitxa bete edo [info@emakumeokplazara.org](mailto:info@emakumeokplazara.org) helbidera idatzi besterik ez da egin behar. Bete beharreko



Eider Elduaen Olazar  
Tolosaldeko Bilgune feminista

Pixkana aldatzen baldin badoa ere, gure herri eta auzoetako jaietako egitarau kartel gehienek gizon aurpegia dute, oraindik orain. Irakurtzen hasi eta, *Floren Nazabal, Iñaki Azurmen-di, Antonio Senosiain eta Jexuxmari Mujika aizkolariak; Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Jexux Mari Peñagarikano, Amets Arzallus, Jexux Maria Irazu bertsolariak* ( eta tartean *Amaia Agirre* edo *Maialen Lujanbio*); *Imuntzo eta Beloki* eta *Unsain anaiak* trikitilariak, *Bizardunak* eta *Ze esatek*-en kontzertua (hamar gizonezkoz osatutako taldeak) eta *dj Bull!* Kriston festa!

baldintza bakarra emakumea izan edota apuntatu nahi den taldea mistoa izatea da. Ikuspegi feministatik burututako lanek ere badute lekua nahiz eta emakumeak ez izan.

Ea gure herri eta auzoetako agertoki eta plazak kolorez betetzen ditugun parekidetasunaren alde!

## Hara, zergatik ez euskaraz? (II)

Zenbat aldiz gertatu zaizu osasun zentrorra joan, euskaraz hasi eta medikuak, erizainak eta abarrek gaztelania egitera behartzea?

Zer eskubide dauzkagu halako egoeren aurrean? Eskubide berak ditugu Donostiako ospitalean, Anoetako kontsultategian edo Ibarako osasun etxean?

Imanol Haro,  
UEMAko hizkuntz normalizatzailea

Aurreko ale batean, euskararen ofizialtasunari eta euskaldunon hizkuntz eskubideei buruz jardun genuen. Gaurkoan, eskubide horiek osasun zentroetan zertan diren ikusiko dugu.

**Zer hizkuntz eskubide ditugu osasun zentroetan?**

Pazienteei dagozkien eskubideen artean, Osakidetzak mediku orokorra edo pediatra aukeratzeko eskubidea aitortzen digu, eta hori baliozkoa da EAE osoan. Medikuei espezialista ere aukera dezakegu, etxeko medikuaren adostasunarekin. Horrek esan nahi du mediku bat baztertu eta beste bat aukera dezakegula, eta, aukeraketa horretan, medikua euskalduna

den edo ez har dezakegu kontuan.

Aukera horrekin, pazienteak mediku orokorrarekiko/pediatrarekiko harremana euskaraz bideratzeko aukera eta eskubidea ditu. Beste horrenbeste gertatzen da idatzizko komunikazioetan; esate baterako, argibideak, txostenak, osasun txartelak, historia klinikoa, alta medikua, erreklamazio edo iradokizun orriak.

Hartara, aurreko alean esan bezala, bi norabidetako komunikazioak euskaraz egin ahal izango dira; betiere, pazienteak nahi duen hizkuntza ofizialean (euskaraz edo gaztelaniaz). Hori bermatze aldera, Osakidetzak euskara maila jakin bat jartzen dio lanpostuari (hizkuntz eskakizuna), eta langileei euskara ikastaroak jasotzeko aukera ematen die.

**Baina, zer gertatzen da hori betetzen ez dutenean?**

Eskubide batzuk aitortuta izan arren, errealitatea oso besselakoa izaten da sarritan: seme-alabentzat euskara ez dakien pediatra jartzen badigute, nola bermatuko da harekin euskaraz egitea eta hark guri euskaraz egitea? Gehienetan, ez dugu ezer egiten. Gaztelaniaz hitz egitera behartzen gaituztenean, gaztelaniaz egiten dugu eta kito. Baina badaude moduak kexak bideratzeko:

- Aurreneko aukera da eskatzea atzitu behar zaituen langilea euskalduna izatea. Osakidetza protokolo bat ezarrita



dauka horrelako kasuetarako, eta irtenbidea eman beharko lioke langile erdaldunaren orde ez langile euskalduna jarrita.

- Bigarren aukera osasun zentroan erreklamazioa idatziz jartzeta da. Eskubidea badaukagu euskaraz egiteko eta euskaraz egin diezaguten eta ez bada betetzen, hizkuntz eskubideen urraketa bat dago, eta hor bada dago motiboa erreklamazioa jartzeko.

- Beste bide batzuk ere badaude: kexa Elebidera (012) edo Hizkuntz Eskubideen Behatokia (902194332) bideratzea. Internetez ere bidera daitezke kexak.



**BENTA  
ALDEA**  
JATETXEA

TEL.: 943 654 079  
ANOETA  
-TOLOSA BIDEAN

Udalerrri Euskaldunen Man-komunitateak bultzatuta, duela urtebete, eskualdeko 13 udalek (UEMAko hamabik eta Villabonak) mozio bat onartu zuten, eskualdeko osasun zentroetako langileak euskaldunak izan daitezzen eskatzeko. Izan ere, deialdi hartan, osasun zentroetan lanean hastekoak ziren langile askorentzat ez zen derrigorrezkoa euskara jakitea, eta, tartean, Tolosaldeko anbulatorioetako

kasuak zeuden. Egunotan, UEMA lanean dabil eskaera zenbateraino bete duten jakiteko. Lan horretan, UEMAK eskertuko luke herritarrak UEMArekin harremanetan jartzea (943260372) eta jakinaraztea mediku, erizain edo bestelako langile erdaldunik dauden Ibarako, Villabonako edo Alegiako osasun zentroetan edo beste herrietako kontsultategietan.

Eta  
Tolosaldean,  
zer?

T X O K O L A T E G I A

K A F E T E G I A

Meriendak, txurroak

Nafarroa, 1 • TOLOSA  
Tel.: 943 651 830

shanti  
kirolak

Rondilla, 11 bis  
Tel.: 943 674 074  
Tolosa

**HALCON**  
BIDAIAK

*Bidaiarik erakargarrienak*

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxes: 943 674 113

errotatxo  
okindegia

Andia kalea, 3      Amaro, 9-A  
Tel.: 943 655 492      Tel.: 943 671 038

# Haurreskola Berazu

8





“Egungo haurreskolaren eraikina zaharkitua geratu da eta ez da batere praktikoa hurrekin lan egiteko”

# ubitik Plaza Berrira

9

Zortzi hilabeteko haurdunaldia izango du Tolosako Abastos eraikin zaharrak. Datorren otsailerako, Tolosako haurreskola amaituta egotea espero da. Udala haurreskola Abastos-en egokitzea bultzatu duena, Berazubin dagoen egungo eraikinaren egoera txarra da. Lekualdatzearen abantaila gisa, haurreskola berria herriaren erdigunean kokatuko dela eta bere funtzioa betetzeko ekipamendu berriekin atonduko dela aipatu dute agintariek. Desabantailak ere baditu ordea: seme-alabak haurreskolan uztera datozen gurasoek autoa non utziko duten esaterako zalantza handia da. Eraikin berriaren nondik-norakoak jasotzeaz gain, Berazubiko egungo haurreskolaren egoera eza-gutu nahi izan du Galtzaundik.



Egungo Tolosako haurreskolaren eraikina zaharra da oso. Lehenengo urteetan Berazubi auzoko eskola izan zen. Haur eskola bezala urteak eman ditu; bertako hezitzaileek ez dute zenbat urte esaten asmatu: "baina asko", diote, "hiru enpresa pribatuen eskuetatik pasa da eraikin hau eta bertan ematen den zerbitzua". Hezitzaile batzuk 12 eta 9 urte artean daramatzate bertan lanean. Duela lau bat urte inguru udalak

hartu zuen beregain, eta azken esku-aldaketa iaz eman zen, Tolosako haur eskola zerbitzua Huarreskolak partzuergoaren esku geratu zenean. "Udalak bertako hezitzaileak mantentzeko baldintza jarri zion partzuergoari. Aurten oposaketak egin dira, eta datorren ikasturtean ez gara bertan izango, bakoitzak lortutako emaitzen baitan leku batera edo bestera mugitu beharko dugu". Hori ez da sare publikoan sartzeak ekarri duen aldaketa bakarra. "Ekonomikoki babestuago gaude, eta lan egiteko orduan berriz, sare publikoko ratioak (haur kopuru bakoitzeko egokitzen den hezitzaile kopurua) askoz ere hobekak dira pribatuekin alderatuz". Hiru

matrikula epe daude urtean: urtarrila, maiatza eta irailean. Epealdi horietatik kanpo ez da haurrik hartzen. "Hori da izaera pribatutik publikora igarotzearen alde txarra. Gainera, matrikulatu eta handik bi hilabetera arte haurrak ezin du haurreskolan hasi; izaera pribatuko haur eskoletan egun batetik bestera egiten dira ingresoak".

#### 75 haur

Ikasturteak aurrera egin ahala, haur kopurua igo egiten da. "Ikasturtea 50 haur ingururekin hasi bagenuen, orain 75 ditugu, eta oraindik ere bada go haur gehiago hartzeko lekua". Gutxi gorabehera 85 plaza inguru dituzte. Zortzi gela erabiltzen dituzte haurrekin: 0-1 urte artekoekin lau gela daude; 1-2 adin tarteko 3 gela; eta 2-3 arteko bat. Datorren ikasturtetik aurrera haurreskoletan 2-3 adin tartea kendu egingo da. Zortzi gela hauetaz gain, psikomotrizitate gela, jangela, barneko patioa, lehenengo solairuko terraza, aldagelak, komunak eta irakasleen gela daukate. Guzti hori bi solairuko eraikin zaharrean eta duela lau bat urte eraikin honi erantsi zitzaion beste eraikin prefabrikatu batean banaturik dago.

#### Espazioaren antolaketa txarra

"Lekua ez da arazoa. Gelak oso handiak dira, pasabideak luzeak eta zabalak... Nahiko leku badaukagu", azaldu du haurreskolako hezitzaileak. Benetako arazoa

Eraikina zaharkituta geratu zaigu, eta oso deserosoa da lanerako. Bi solairu ditu eta ez dago igogailurik. Eskaileratan gora eta behera ibili behar izaten dugu haurrak besoetan hartuta

espazio horren antolaketan dago. "Eraikina zaharkituta geratu zaigu, eta oso deserosoa da lanerako. Bi solairu ditu eta ez dago igogailurik. Goiko solairuan 1-2 adin tarteko 2 gela daude eta 2-3ko beste gela bat. Jangela aldiz behean daukagu. Ikasturte hasieran haurrak oso txikiak dira eskaileratan gora eta behera ibiltzeko. Ezinean ibiltzen gara, haurrak besoetan hartuta". Beste gabestia garrantzitsua haurren aldagelena da. "Haurreskola guztietan, gela bakoitzak haurra aldatzeko bere gela izaten du. Aldagela horien hormak beirazkoak izaten dira, hezitzaileak gelan dauden gainontzeko haurrak begi bistatik ez galtzeko. Hemen soilik hiru gelek dute bere aldagela, eta soilik bakarrak ditu beirateak. Aldagelarik ez duten gelen kasuan, haurra hartu eta gelatik urrundu behar izaten dute hezitzaileek, gelan geratzen diren haur guztiak beste hezitzaile baten kargu utziz". Eraikina zaharra izatean, itoginak, haurren mugikortasunerako oztopo diren koxkak, larrialdietarako irteera desegokiak eta bestelako arazo txiki ugari ere badituela adierazi dute hezitzaileek.





 Espazio falta baino gehiago, espazioaren antolaketa da arazoa egungo Berazubiko haurreskolan.

Aldiz, gelek duten zabalera abantaila gisa bizitzen dute hezitzaileek. "Gela oso handiak ditugu. Egungo haurreskolatan askoz ere gela txikiagoak egiten dituzte". Gela gehiago baina txikiagoak egitea da tendentzia. Abastos-en ere hala egitea aurreikusten da.

#### **Puntako ekipamenduekin hornitutako haurreskola**


Berazubiko eraikin zaharrean konponketak egiten hastea ez zuela merezi iritzita, Tolosako Udalak haurreskola Plaza Berriko Abastos eraikinaren lehenengo solairuan egokitzea pentsatu du. Lanak hasi dira dagoeneko eta zortzi hilabeteren buruan Iñaki Etxeberria arkitektoak diseinatutako haurreskola prest egotea espero da.

Abastos-eko haurreskolak

gurasoak eta umeak hartzeko hall handi bat izango du, ume-kotxeak uzteko hiru gunerekin. 0-1 adin tarteko umeentzako hiru gela egingo dira eta 1-2 urte artekoentzako beste lau. Horretaz gain, jolaserako gune handi bat, irakasleen gelak, jangela eta biltegia izango ditu.

Ondo hornituta eta ongi kokatuta egongo da haurreskola berria. Voith-Gorostidiko zonaldearen urbanizazioarekin, Plaza Berria herriko erdigune garrantzitsu bilakatu da. Gainera, haurreskola publikoa herriko Sanmanengo Ikastetxe publikotik gertuago kokatuko da. Eta oro har, Tolosa erdigunean bizi diren gurasoek ere eskurago izango dute beraien seme-alaben heziketa gunea. Dena den, lotu gabe gertatzen den haririk ere bada:

goizeko lehenengo orduan eta eguerdian haurrak utzi edo jasotzera joaten diren gurasoek non utziko dituzte autoak? Alde Zaharrerako sarreran trafikoko pilaketak sor ditzake honek, eta Rondillako aparkalekua ez dirudi arazoari konponbidea emateko alternatiba denik.

Zalantzarik gabe ordea, Tolosak haurreskola berria behar du, bere funtzioetarako egoki ekipatu eta antolatutako gunea. "Tolosa erdigunean bizi diren gurasoak gustura daude lekualdatzearekin, Berazubi eta lurre inguruan bizi direnak ez horrenbeste. Hala ere, guraso guztiek onartzen dute egungo eraikina ez dela egokia", adierazi dute haurreskolako hezitzaileek. Berazubi-Plaza Berria beraz izan dadila arrerapausoa. 

**Xirimiri**  
*Txokolategia*  
*Xabier Izagirre*

**Gosariak eta meriendak**

Tel.: 943 675 223  
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

**ELUSTONDO  
ELEKTRIZITATEA**

 Argi lanak  
Iluminazioa  
Antenak

lurre, 4 (Mustad)  
943 672 300  
Amaroz, 21.  
943 675 513  
20400 TOLOSA

**Zumardi**

SEGUROS  
BILBAO



**Aholkularitza  
integrala**

Laskurain, 8-behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 651 877

**Martin  
Eceizabarrena**



Instalazio  
erreforma  
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa  
Tel.: 943 672 445  
Mobila: 608 774 822

**J. San Sebastian**  
MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141



Txintxarri abesbatzaren mende erdia ospatzeko ekitaldi berezi ugari izango dira urte amaierara arte

# “Herriak ere ospatu egin nahi

50 urte ez dira egunero betetzen, eta Alegiako Txintxarri Abesbatzak merezi bezala ospatu nahi du mende Erdiko ibilia. Urte osoan zehar egiten dituzten ohiko ekitaldiak bereziak izango dira aurten, eta ekitaldi horietatik at, beste hainbat ekintza eta kontzertu ere antolatu dituzte. Hilaren 12an kontzertua eskaini zuen Donostiako Orfeoak, eta ekainaren 5ean “Alegia musikaz blai” festa ospatu zen herriko kultur batzordearen ekimenez, alegiarrak abesbatzaren 50. urteurrenerako prestatzen joan daitezten. Egund garrantzitsua izan zela aipatu dute txintxarrikideek, argi ikusi baitzen, herriak ere abesbatzaren urteurrena ospatu nahi duela.

Leire Zubeldia

1960an sortu zuen Jose Gastesik Txintxarri abesbatza. Abesbatzaren sustatzailerak eta zuzendaria izan zen urte askotan. Egund, Garbiñe Orbegozok zuzentzen du taldea. Sorrerako urtetik da txintxarrikidea Xefe Balerdi alegiarra. Koruko solista eta tenorea da, 50 urtetako ibiliaren lekuko paregabea: “nirekin batera beste bost kide daude hasiera-hasieratik. Beti ibili izan gara 40 abeslari ingururekin lanean. Egund, 41 gaude. Urte guzti hauetan berriz, guztira 250 lagun pasa dira abesbatzatik. Oso garrantzitsua izan zen 1991. urtean Txintxarri Txiki abesbatza sortzea, horrela belaunaldi berriei bidea ematea lortu genuen. Oso talde zabala gara, pentsakera eta adin ezberdineko jendea gaude, onerako eta txarrerako. Oso aberasgarria da hori”, kontatu du. Xeferekin batera Nerea Pikabea abesbatzako kidea ere agertu da hitzordura. Urteurrenako ekitaldiak prestatzen ilusioz eta gogotsu ari direla jakinarazi

du. Ez abesbatzako kideak bakarrik, herria bera ere barruraino busti dela azpimarratu du: “jendeari kostatu egin zaio 50. urteurrenean sartuta ginela irenstea, baina azkenean konturatu dira eta herrian motorrak berotuta daude. Alde horretatik oso garrantzitsua izan zen ekainaren 5eko festa. Kultura batzordearen ekimena izan zen “Alegia musikaz blai” jaia. Nolabait, abesbatzaren urteurrena ospatzeko antolatu zuten”, azaldu du Nerea. Festa hori antolatzeaz gain, keinu maitakor gehiago ere egin dizkio Alegiako herriak abesbatzari: “apirilean bertso bazkaria egin zen elkarrean herriko bertso taldeak antolatuta. Bertan Txintxarri abesbatzari eskainitako bertso-jarriak kantatu zituzten. Bertso berberak abestu ziren ekainaren 5ean herriko plazan”. Urteurrenaren antolaketarako laguntzaile bila aritu direnean ere herriko enpresa eta saltokiek harrera ona egin dietela azpimarratu dute. Keinu guzti hauk ondorio argi

# Gehigarria San Joanak 2010



Iriarte   
jateetxea

Jose Maria Goikoetxea  
kalea, 34  
20493 Berrobi  
943 683 078

Pikatzeko:  
- Marisko zipriztinak  
- Ontto laminatuak arrautzarekin

Aukeran:  
- Itsas zapo arrautzatua ilar eta zizekin  
- Txerrikume errea

Postrea:  
- Limoizko sorbetea  
- Tiramisu kopa

**33€ + edaria**

Pintxoak, bokatak eta anoaki

  
**EGOKI**  
TABERNA

Pablo Etxeparekalea, 20 - Berrobi  
20400 Tolosa  
Tel. 943 1 89 145

# Nerea Lentzeria

## Aukera guztiak bainujantzietan

Tolosako Nerea Lentzeriak sasoiaren sasoiako produktuak eskaintzen ditu. Udaberri-udara kanpainan bete-betea sartuta gaudenez, eskeintzen artean bainujantziak dira nagusi. Familia osoarentzako bainujantziak dituzte, neurri eta mota guztietakoak. Horretaz gain, udarako aproposa den korseteria, kirola egiteko barruko arropa, udarako pijamak eta bestelakoak aurkituko dituzu Nerean. Sartu eta ikusi.

Nerea lentzeria eta korseteria denda aukera zabala duite urte sasoi honetarako egokiak diren jantzietan. Finean, udaran ere urte osoan zehar eskaintzen dituzten produktu eta etxe berdinekin egiten dute lan, bezeroei kalitatea bermatze aldera. Lentzeria, korseteria, kirola egiteko barruko arropa berezitua, pijamak, kamisoiak eta kamisolak, eta bainujantziak; batez ere bainujantziak aurkitu dituzu Nerean. Produktu guzti hauetan familia osoarentzako eskaintza daukate. Tailari dagokionez, haurrentzako 4 tailatik 18 tailara arteko neurriekin egiten dute lan; helduen kasuan neurri guztietako produktuak daukate bai gizonezko eta bai emakumezko bezeroen eskura.

### Bainujantzietan berezituak

Egun, bainujantzien modak eskaintzen dituen aukera guztiak dituzte Nerean. "Gure espezialitatea da. Taimaina guztietako tailak ditugu, txikienetatik hasi eta taila handienetaraino. Adin guztietarako aukera dago, bai gizonezko eta bai emakumezkoetan", azaldu du Eguzkik, Nerea Lentzeriako arduradunak. Diseinu zein materialaren aldetik ere aukerak hamaika dira: "bikiniak, bainujantzi osoak, eskotatuak, likra onekoak, diseinu originalekoak... Estantatuari dagokionez, aurten prenda liso asko iritsi zaizkigu, baina raia-dunak ere ugari dira". Azken urteetan bikiniaren aldeko tendentzia nabarmen igo bada ere, pieza bakarreko bainujantzia bere parera iritsi dela adierazi dute Nerean. "Azken finean gero eta jende gehiago joaten da igerilekura; bai udaran, eta baita urte osoan zehar ere. Horregatik urte osoan izaten ditut pieza



osoko bainujantziak". Gizonezkoentzako bainujantzietan eman den aldaketa ere nabarmendu nahi izan du Nereak. "Gizonezko helduentzat ere diseinuzko bainujantziak egiten dira; jubenilak. Betiko bainujantzi horiek atzean geratu dira". Etxe onenekin egiten dute lan: Anita Confort, Rosa Faia, Little Kiss, Evelyn, edota Bora Bora etxeak aipatu ditu.

### Kirolerako barruko arropa

Mendian ibiltzeko, polikiroldegian erabiltzeko edota korrika egiteko egokiak diren barruko arropetan ere eskaintza zabala du Nereak. Gama guztiak dituzte. Korsetero etxe berberekin egiten dute lan produktu hauetan ere: Anita, Rosa Faia, Pompea... Ohiko barruko arropetan berriz Avet eta Set, Mari Clre, Golden Lady, Felina edota Sloggi markak dituzte besteak beste.

Urte osoko eskaintza bada ere, sasoi honetan korseteriak duen garrantzia azpimarratu nahi izan du dendariak: "udaran, ezkontzak eta era honetako ospakizunak direla eta arropa berria erosten dugu. Arropa arina izaten da, eta honek korseteria egoki baten beharra eskatzen du". Behar horiek asetzeko prestatuta daudela ziurtatu dute.

### Pijamak ere mila

Kaleko konjuntotxoak, hiru piezatarako pijamak, piratak, tirantedunak, hondartzara joateko kamisolak, kamisoiak, amagaientzako prenda... Loe, Mari Clare, Massana eta bestelako ekoizle kalitatezko jantziak aurkituko dituzu gama honetan ere. Denetarik eta denentzat.

Publierreportaia

Sartutasortu

# Uztailean 0-4 urtekoentzako arte tailerra

Ikasturtea ekainean bukatuko bada ere, Tolosako Kale Nagusian dagoen arte tailerrak atek zabalik izango ditu uztaila osoan. 4 urtetik gorakoentzako arte tailer libreak izango dira goizez. Arratsaldeetan helduentzako larrugintza ikastaroa eskainiko dute. Eta aurtengo uztailean, lehenengo aldiz, 0-4 urte arteko haurrentzat eta beraien gurasoentzat tailerrak izango dira, goizez eta aditu baten gidaritzapean. Ordutegiak eta egunak taldeak osatu ahala zehaztuko dituzte.

Eskaintza berria da eta haur eskolaz kanpo oso zail suertatzen da horrelakorik topatzea. Naiara Delgado Sartutasortu tailerreko arduradunak eman digu 0 eta 4 urte arteko haurrentzat eta beraien gurasoentzat prestatutako tailerraren berri: "Uztailean eskainiko dugu. Goizez izango da. Gehienez 6 haur eta 6 guraso hartuko ditugu". Tailer hau Mirenek gidatuko du. Atarrabiako haur eskolan 0-3 urte arteko umei plastika tailerrak ematen aritzen da bera. "Lauko taldetan egiten dugu lan. Gai baten eta material baten inguruan proposamenak egiten dizkiegu umei. Horrela, beraien material hori askatasun osoz esploratzeko aukera daukate", azaldu du Mirenek. Ura izan daiteke gai bat. Irakasleak ontzia, ur koloreztatua, ura iragazteko gailuak eta tankerako tresnak emango lizkieke. "Umeak ontziatik-ontzira traseak egingo litzuke, edo iragazteko gailutik ura nola desagertzen den ikusi, ur-koloreztatua isurtzean lurra nola margotzen den deskubritu... Esperientzia berri guzti horiek bizitzen ditu haurrek". Haurrekin lanketa hau eginda esperientzia mordoa eramaten zuen etxera Mirenek eta esperientzia hauek haurren gurasoekin elkarbanatzeko gogoia piztu zitzaion. Orduan, Sartutasortu tailerrarekin egin zuen topo. "Tailer hauetan dinamika bera eramango genuke, baina gurasoak bertan daudela. Haurrek bere esperientzia bizituko luke; aita edo amak esperientzia hori eramango luke etxera eta bere haurren beste ikuspuntu batetik ezagutuko luke". Mirenek haur bakoitzari egoki



zaion proposamena prestatuko du; gurasoak dokumentatuko ditu euren haurren esperientzia interpretatzeko gai izan daitezen; azkenik, haurrek esperientziatu ondoren elkarrizketa bat egingo dute ondorio bateratuak atera eta zertan hobetu dezaken adosteko. Ordutegia ez da mugatuko, haurren nahiaren arabera izango da tailer bakoitzaren iraupena. Irailean ere tailerrarekin jarraituko dute.

## 4 urtetik gorakoentzat tailer libreak

Kurso guztian zehar bezala, Naiarak 4 urtetik gorako arte tailerra gidatuko du. Ikasturte osoan zehar egiten duten bezala, tailer honetan libreki sortu ahal izango dute ikasleek. Horretarako era guztietako materiala daukate eskuragai: margoak, pintzelak, tenperak, era guztietako paperak, kartulina, tela pusketak, plastikozko ontziak, kartoiak, tapak eta mota ezberdinetako material berrerrabilgarriak. Espazioa ere ikasleen beharren arabera moldatu daiteke.

Sartutasortuk abiapuntu gisa plastika hartu bada ere, ikasturtean zehar adierazteko bestelako teknikak sortu dituzte ikasleek. "Esate baterako, ikasle batek plastilinazko panpin batzuekin animazioak sortu zituen programa informatiko baten bidez; beste batek argazki-muntaia bat sortu zuen; antzerkiak ere egin ditugu, eta ikasleek hala eskatuta, sortutako lanen jendaurreko aurkezpenak egin dira". Arte tailerraren helburua, ikasleen eskuak trebatzea, sormena garatzea, norbera bere proiektua aurrera eramateko gai izatea, prozesuan sortzen diren arazoei irtenbidea ematea, eta materiala zaintzen eta baloratzen ikastea da. Bada, helburu hauek bete dituzte ikasturte honetan, eta gainera aipatutako proposamen berriak sortu dira. Beste berrikuntzarako bat liburutegia da, eta tailerreko hormetan egiten hasi diren muralak.

Helduekin ere arte tailer libreak egiten dituzte. Baina Naiarak aipatu duenez, helduak zerbait konkretuaren bila joaten dira: "normalean teknika jakin bat irakasteko eskatzen didate. Tailer hauek libreak dira, baina askatasun horren barruan sartzen da zerbait jakina ikasi nahi izatea". Uztailean helduek ere izango dute zer eginga Sartutasortun. Larrugintzako ikastaro monografikoa antolatu dute. Arratsaldez izango da tailer hau. Aurretik aipatutako ikastaroetan bezala, azken honen ordutegia ere taldea osatzen denean zehaztuko dute. Informazio gehiago nahi izanez gero Sartutasortu tailerrera gerturatu zaitezke, Kale Nagusiko 16. Zenbakian.

# Tolosako San Joanak 2010

## Egitaraua

### Larunbata 19

09:00 Goiz guztian, sanjoanetako aparteko azoka.

Goizez (09:00etan Gernikako Arbola), eta arratsaldez (15:30etan San Frantzisko pasealekuan), kale saskibaloia (3 x 3), XI. San Joan saria.

09:00 Graffiti erakusketa, herrian zehar

10:00 Beotibar pilotalekuan, Tolosako Beotibar Zesta Punta Eskolak antolatuta, XIX. San Joan Zesta -Punta Txapelketa.

10:00 Usabal kiroldegian, igeriketa probak, XLI. San Joan saria.

10:30 GiroArte dultzaina taldea kalez kale ibiliko da, herria doinuz alaitzen.

11:45 Erraldoi eta buruhandiak, Tolosako dultzaineroekin. Irteera Plaza Zaharretik.

12:00 Eburne Pasaban "Tolosako alaba kuttuna" izendatze ekitaldia Udaletxeko batzar aretoan.

18:00 San Frantzisko pasealekuan Txirringulari Kriteriuma, "Jose Manuel Ansorena XIV. Memoriale",

Oriako Txirringulari Eskolak antolatuta. Emakumezko, kadete, gazte eta afizionatu mailako txirringulariek hartuko dute parte.

18:00 Usabal kiroldegian, San Joan eskubalo sariko finalak.

### Igandea 20

09:00 Diana, GiroArte dultzaina taldearekin.

10:00 Xake-Jokoa, Kultur Etxean, "Tolosako Xake Elkartek" antolatuta: XXXVII. Nazioarteko Lehiaketa taldeka, XXXIV. "Enrique Pineda" Memoriale.

12:00 Oria ibaian batel estropadak (sailkapen probak)

12:30 Usabal kiroldegian kimu futbolaren "Topaketen" finalak. Tolosa C.F.-k antolatuta.

### Asteazkena 23

10:30 Euskal Herria plazako "Iturriza" Jubilatuta eta Pentsionisten Elkartean Mus Txapelketa.

17:00 Txistularien kalejira, antzinako erronda bidetik barrena.

18:30 Suziria, Udaletxeko balkoitik, eta kanpai hotsa, jaien hasiera iragartzeko.

18:30 Erraldoi eta buruhandiak, Tolosako dultzaineroekin. Irteera Plaza Zaharretik.

19:30 Zerkausian bertso jaialdia: Aitor Mendiluze, Amaia Agirre, Bixente Gorostidi, Mikel Artola, Aitzol Barandiaran eta Jokin Sorozabal. Gai-jartzailea Iker Iriarte.

19:30 Udaltatza Plaza Zaharretik abiatuko da Arrameleko San Joan kaperako bezperetan eta arratsotoitzetan parte hartzeko.

20:00 Berdura plazan, Isidro Larrañaga Akordeo Orkestraren kontzertua.

22:00 San Joan sua, Andre Maria plazan, Udaltatza bertan dela. Ondoren, Udaberri Dantzari Taldeak eta Tolosako Musika Bandak jardungo dute. "San Joan" zortzikoa jo ondoren, Musika Banda kalez kale ibiltzera abiatuko da. Jarraian Tolosako Orfeoak kantatuko du.

23:30 Plaza Berrian "Switch" eta "Seiren" musika taldeen emanaldia.



Kalitatea eta segurtasuna zure zerbitzura - Ezkontzak, irteerak, ikastetxeak, autobus literadunak gauzez lasai bidaiatzeko...



Tel.: 666 489 010 / 11

(24 orduak)

Tel.: 943 305 050

(Garajea)

Faxa: 943 305 060

(Garajea)

Ubillus auzunea, 55 polig.

9 pabilioia, 4 zbkia. ANDOAIN (Gipuzkoa)



# Tolosaldeia

• Ibilaldiak • Ezteiak • Agur-afariak  
• Ikastetxeak • Kirol taldeak • Etab.

Tel. / Faxa: 943 650 621 • Mugikorra: 619 723 819  
Donostia etorbidea, 9 - 20400 Tolosa



## Osteguna 24

07:00 Alkate Soinoa Tolosako Txistulari Bandaren eskutik.

08:30 Diana, Tolosako Musika Bandarekin.

08:45 Diana, Tolosako eta Iruñeko txistulari bandekin.

09:00 Diana, GiroArte dultzaina taldearekin.

09:00 Txirrindulariak (irteera): 1. eta 2. mailako afizionatuen proba, "XXXVII. Jose M<sup>a</sup> Anza Memoria-la", Oriako Txirrindulari Eskolak antolatuta.

09:30 Plaza Zaharrean Eskopetariak eta Tolosako Musika Banda bilduko dira. Diana, desfilea eta, ondoren, San Joan Alardea, Gipuzkoako antzinako foru milizien oroimenez, Udalbatza buru dela.

10:00 Meza Nagusia Andre Maria parrokian; "Santa Maria Kaperak" abestuko du. Ondoren, prozesioa. Bertan parte hartuko dute Udalbatzak, kofradiek, Tolosako bordondantzariak eta erraldoiek; aldi berean, elkarrekin eskope-

tariak ordenantzetako salbak botako dituzte betiko tokietan.

Elizkizunak amaitu ondoren, eskopetari konpainiak Euskal Herria plazan bilduko dira berriro, bertan azken deskargak egiteko.

11:45 Txirrindulariak (amaiera): XXXVII. Jose M<sup>a</sup> Anza memoria.

12:00 Oria ibaian batel estropadak (finalak)

13:00 Kontzertua, Berdura Plazan, Tolosako Musika Bandarekin eta Tolosa eta Iruñeko udal txistulariekin.

16:45 Udalbatza, Tolosako Musika Banda, txistulari, bordondantzari eta eskopetariak Plaza Zaharretik abiatuko dira, Andre Maria eliza nagusiko bezperetara joateko. Ondoren, Arrameleko San Joan kaperan izango diren arrats otitzetan parte hartuko dute.

Elizkizuna amaitzean, Udalbatza, bordondantzariak, txistulariak, Musika Banda eta eskopetarien konpainiak Trianguloan bilduko dira, bertan azken deskargak egiteko. Ondoren, ohiturazko aurrekua



dantzatuko da bertan.

19:30 eta 23:30 "Jones Brothers" txaranga kalez kale ibiliko da, herria doinuz alaitzen.

23:00 Su festak, 1. bilduma; Pirotecnica Zaragozana.

23:30 Euskal Herria plazan kontzertua: "Ilê Aiyê" (euria eginez gero, Leidorren).

## Ostirala 25

10:30 Plaza Berrian Sokamuturra.

11:00 Goizez eta arratsaldez (11:00 /13:30 eta 16:00/19:30), haur jaialdia, Sortzez Garbia plazan: gaztelu, ohe elastiko, tren txiki... etab.

11:00 San Frantzisko pasealekuan, Tolosako Harizpe Elkarteak antolatuta, Toka Lehiaketa.



**IXABEL**  
Haur eta emakume oinetakoak  
osagarriak  
Larri, 16 • 20400 Tolosa • Tel. 943 670 277

**AA**  
**ARGITUASESORES**

P. SAN FRANTZISKO, 5 - 1. / 20400 TOLOSA (GIPUZKOA)  
T 943 654 727 / F 943 650 288 / argitu@argitu.es

  
**IGARRI**  
ASESORIA  
INTEGRAL

**TOLOSA**  
San Francisco, 13-2.A  
Tel.: 943 654 250  
Faxa: 943 650 460

**DONOSTIA**  
Birmingham kalea 1 esk ppal  
20.002 DONOSTIA  
Tel.: 943 316 126  
Faxa: 943 316 127



18:00 Trianguloan "Hipo eta Tomax" haur ikuskizuna.

18:30 Tolosako margolarien XLIV. erakusketaren inaugurazioa, Txinparta Elkartean (zabalik ekainaren 27a arte).

19:30 Usabal kiroldegian, koadrilen arteko "Tolosa Kup" areto futbol txapelketako finalak (19:30etan 3. eta 4. postuak, 20:30etan finalak).

20:30 Hodei Truk abesbatzaren kontzertua Berdura plazan.

22:30 Euskal Herria plazan "Mokolo gau batez" kontzertua: "Desordutan", "Deabruak Teilatuetan", "Bonberenea Txaranga" "Hodeiertz abesbatza", "Manent", "Bide Ertzean" (euria eginez gero, Leidorren).

#### Larunbata 26

10:00etan Beotibar pilotalekuan Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitza VI. esku pilota txapelketaren finalak.

11:00 Erraldoi eta buruhandiak, Tolosako Dultzaineroekin. Irteera Plaza Zaharretik.

11:30 "Bonberenea Txaranga" kalez kale ibiliko da, herria doinuz alaitzen.

12:00 Tolosako Koadrilen Egunari hasiera emango zaio Plaza Berrian. Egun osoan: Haimaketakoa, joakoak, txiste, irrintzi eta bertso lehiaketak, kalejira, dantzaldia, etab. Eguna alaitzen txaranga eta dultzaineroak eta "Tolosa Kantari" taldea arituko dira.

14:00 Euskal Herria Plazan, koadrilen herri bazkaria. Ondoren "Jo ta hanka" musika taldearen emanaldia.

12:00 Berazubín, tenisa. San Joan sariaren finalak.

18:00 Sortzez Garbia plazan "Azkona Taldea" haur ikuskizuna.

18:00 Trianguloan Herri Kirol saioa: Mindegia, Senosiain, Azurmendi eta Otaño aizkolariak; Izeta II eta Izeta IV harrijasotzaileak; eta, Ibarako emakumezko sokatira taldeak.

19:00 Plaza Berrian Xanpetiki-dantza eta Larrain-dantza.

19:00etan Berdura plazan, "Sagardo Eguna". Antolatzailea, Batasuna Elkartea.

19:00 "Iraunkorrek" Txaranga eta "Mulambo" perkusio taldea kalez kale ibiliko dira, herria doinuz alaitzen.

19:30 "Mariachi Garibaldi" taldearen kalejira.

23:00 Su festak, 2. bilduma; Astondoa Piroteknia.

23:30 Plaza Berrian "Inde Kitxen" musika taldearen kontzertua, ondoren "DJ Black"

23:30 Trianguloan kontzertua: "Mariachi Garibaldi" taldearen eskutik.

#### Igandea 27

Egun guztian zehar Herri Musika Tresnen Topaketa. Dultzaineroak, txalapatariak, albokariak eta trikitilariak kalez kale ibiliko dira, herria doinuz alaitzen.

10:30 Zezen plazan xexentxoak eta zalditxoak haurrentzat.

11:00 Goizez eta arratsaldez (11:00 /13:30 eta 16:00/19:30), haur jaialdia, Sortzez Garbia plazan: gaztelu, ohe elastiko, tren txiki... etab.

12:30 Usabal kiroldegian areto futbol haurrentzat Arsenal Elkar-teak antolatuta (finalak).

18:00 Euskal Herria plazan "Rezikle-tas" haur ikuskizuna. Laguntzaileak: Topic eta Euskalerría plaza-ko tabernariak.

18:00 Zezen plazan, zezen-errekortarien V. Lehiaketa adarpuntak moztu gabeko zezenekin.

20:00 "Mongo" blues taldearen emanaldia Plaza berrian.

#### Oharrak

- Ekainaren 17an, 19:00etan Aramburu Jauregian, Kultur Etxeko arte plastikoaren lantegietako ikasleek lanen erakusketa zabalduko da.
- Ekainaren 19an herriko 6 jubilatuzaharrenei omenaldia, Harizpe Elkar-teak antolatuta.
- Uztailaren 4ean, jubilatuen bazkaria.

# Bidaide

Bidai Agentzia

C/ Emiobeia 6 Behea - 20150, Villabona  
Telefona: 943 69 26 93, Fax: 943 69 25 10

SANZ  
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74  
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea, 7 behe  
20400 Tolosa

# Vascongada Ehorztetxea Dolurako aterpea eta goxotasuna

Vascongada ehorztetxe esperientziadunak Tolosako beilatokia (Kondeko aldapa 5.) goitik-behera eraberritu du. Lan taldean ere aurpegi berriak dituzte. Kide berri hauen lana maitatutako pertsonaren galera sufritzen ari diren senideei arreta eta babesa eskaintzea da. Hain gogorak diren uneetan, Vascongada prest da zerbitzu profesionala eta gertukoa eskaintzeko.

## Tolosako beilatoki eraberritua

Vascongada ehorztetxeak 40 urteko esperientzia du. Tolosan duela 25 urte ireki zuten beilatokia. Hilabete honetan amaitu dituzte kondeko aldapako beilatokiko instalazioak berritzeko lanak. Hiru sala dituzte, hiruak ere zabalak dira eta difuntuari dolu egitera joaten diren senide eta lagunentzako erosotasun osoa eskaintzen dutenak; bezeroentzako aparkaleku pribatua ere badute; harreraren alde batera kafetxo bat hartzeko egongela dago, eta bestera geletara doan pasabide zabala.

## Lan talde profesionala

Instalazioak ez ezik, pertsonala ere berritu du Vascongada ehorztetxeak. Bi aurpegi berri daude, eta biak dira emakumeak: Mertxe Goia eta Axun Martinez. "Vascongadak petsonalean emakumeak sartzeko apustua egin du. Emakumeok ulerko-ragoak gara heriotzaren aurrean, eta maitatutako pertsona baten galera sufritzen ari direnekin sentiberago eta samurrago jokatzeko dakigu", azaldu dute biek. Hain zuzen ere, Mertxe eta Axunen lana familiei harrera egin eta beraientzat hain gogorak diren une horietan laguntzea da: "Alde batetik heriotza gertatzen den unetik aurrera egin beharreko burokrazia pisutsu guztia egiten dugu: heriotza-agiriaren tramitazioa, parrokia eta hilerriarekin harremanetan jartzea, eskelak, loreak... Tratua pertsonalizatua da beti. Familia guztien egoera ez da bera, eta bakoitzaren beharrezan araberako aurrekontuak egiten ditugu". Baina Mertxe eta Axunen eginkizunik garrantzitsuena difuntuaren senideei arreta eta babesa eskaintzea



da. Hala azpimarratu dute beraiak: "une gogor horiek ahalik eta era samurrenean pasa ditzaten saiatuko gara. Beraien doluarekin bat egiten dugula adierazi behar diegu nolabait, eta beilatokiko egonaldia ahalik eta eramangarriena egin". Horretarako 6 hilabeteko ikastaro bat egin dute psikologo batekin.

Ehorztetxeko lan taldea osatzen duten gainontzeko langileak ere profesionalak dira, esperientziadunak, eta dagozkien tanatopraxia eta tana-toestetika ikasketak eginak dituzte.

Tolosako Vascongada beilatoki eraberritua gertu da beraz heriotzaren atsekabea jasaten dutenei aterpea eta goxotasuna eskaintzeko.



## 28 kanala Digital aroan

28 kanala, Tolosaldea Telebista, LTD-an sartuta dago jada, UHF 24-an. Momentuz Oiaungo antenatik seinalea jasotzen dutenek ikusi ahal izango dute, baina eskualde osora iristeko lanean ari dira.

Laster hasiko dira Villabonako zentrotik ere emititzen. Uztailean zehazki. Orduan, eskualdeko iparraldeko herriek ere LTD-an ikusi ahal izango dute 28 kanala, Tolosaldea Telebista. Aro digitaleko erronkei aurre egiteko prestatzen ari dira, bai, baina horrek ez du esan nahi analogikoan emititzeari utziko diotenik. Aukera hori ere badu ikus-entzuleak. Aurrerapauso handia izan da LTD-a eskualdeko etxe gehiagotara iristeko aukera eskaini baitu, baina inbertsio handia ere egin behar izan dute digitalera salto eman ahal izateko.

LTD-az gain, 28 kanala Euskaltel bitartez ere ikusi daiteke, kable bidez. Gainera, Euskaltelen Telebista Digitalari esker, Tolosaldeako Telebista Euskadi osoan ikusi daiteke 928. kanalean eta gure eskualdean 11.ean.

### Lau urte lanean

Urrian beteko ditu eskualdeko telebistak lau urte. Sorreratik hona egindako lanari esker gero eta kalitate handiagoko programazioa eskaintzen dute. Baina pantailaratzen duten produktua ez ezik, telebista zerbitzuak ere hobetzeko lanean ari dira: besteak beste, IP

bidezko telebista, telebista ezbedineta-ko artxiboak eta konektibitatea azkarra-goa lortzea dituzte etorkizun hurbileko helburutzat.



28 kanalaren beste helburuetako bat euren ikus-entzuleengana are gehiago hurbiltzea da. Eskualdeko pertsonen partaidetza eta lankidetzat bilatzen dute. Adibide gisa bukatu berri den Illargi Coupage dugu. Aste horretan zehar lan berezi bat egin zuten Zerkausian "stand" bat jarriz eta bertatik emisio berezia izan zuten. Zerkausiko 3 solairuetan pantaila ezberdinak jarri zituzten eta bertan gertatzen zen guztia aditzera ematen zuten.

Zerbitzuak aipatzen hasita, ezin bazterrean utzi horrenbeste arrakasta duen [www.28kanala.com](http://www.28kanala.com) web gunea. Hilean 5.000 bisita jasotzen ditu batezbeste, atalik bisitatuena bideoena delarik. Atal honetan urteko saio berezi guztiak eta baita albiste garrantzitsuenak ere ikusteko eta deskargatzeko aukera eskaintzen da. 28 kanalak dioen bezala, etorkizuna internetean dago, telebista ikusteko beste era berri eta interesgarri bat dugu sarea.

### San Joan jaietan programa berezia

Etorkizuneko erronketan du 28 kanalak burua, baina eguneroko lana ez dute alde batera uzten. Dagoeneko ohitura bilakatu da San Joan egunez saio berezia egitea. Bada, aurtengoan ere Zerkausiko terraza 28 kanalaren plato bilakatuko da. Plato horretatik gonbidatu ezberdinak igaroko dira eta Tolosako jaietako errepasoa egingo diete. San Joanetako batel estropada txapelketa ere pantailaratuko dute beste saio berezi batean. Guzti hau San Joan egunean bertan emitituko dute arratsaldeko 18:00etan eta 22:00etan, eta noski, baita 28 kanaleko webgunean ere!



Galtzaundi 326  
10eko ekainak 18

# i du urteurrena”

batera garamatzate: Alegiak bere sentitzen duela Txintxarri abesbatza, eta denak ere gogotsu daudela bere 50. urteurrena ospatzeko.


## Urtemuga berezia

Txintxarri Abesbatza urteurrenak ospatzera ohituta dago. 25. urteurrena eta 40. urtemuga ospatu zituzten bere garaian. Baina 50.ena berezia izango da, edo era horretan bizi dute beraiek behintzat. “Urtero-urtero egiten ditugun ekitaldi guztiek ukitu berezi bat izango dute; esaterako, Santa Ageda bezperan gu bakarrik atera izan gara, baina aurten herriko bertso taldeari eskatu genion gurekin kantu-eskean ateratzeko. Beraiek gustura hartu zuten proposamena. Oso polita izan zen”. Ohiko ekitaldi hauetatik at, beste ekitaldi batzuk ere egingo dituzte urteurrenaren harira. Horietako bat pasa berria da: Donostiako Orfeoak Alegiako elizan emandako kontzertua. Espero bezala, jendetza bildu zen. Ezin ahaztu apiri-

lean Portugalera egindako bidaia. Urteak pasa dituzte bidaia hori egiteko kuotak ordaintzen. Ondo merezitako oparia izan zen: Boira herriari kontzertu bat eman eta bertako txokoak ezagutzeko aukera izan zuten. Bestetik, 6 eta 7 urteko haurrentzat abesten ikasteko tailerrak jarri dituzte martxan. Txintxarri Txiki abesbatza, tailerreko ikasleak eta Txintxarri Abesbatzak elkarrekin kontzertua eskainiko dute hilaren 26an; kontzertu musikatu izango da gainera. Eta nola ez, urteroko moduan, Karmen jailetan ere, hilaren 18an zehazki, abestuko du abesbatzak; aurten inoiz baino ozenago. Irailean, kantatzeko ohiturari bultzadaxo bat emate aldera kantu-jira egingo dute Alegiako kaleetan. Urriari, Txintxarri egunaren inguruan erakusketa bat antolatzeko asmoaren berri ere eman dute. Abesbatzako uniforme emandako kontzertuetan jasotako oroigarriak, argazkiak, bideoak... material ugari pi-

latu du abesbatzak 50 urteko ibilian, eta beraz, badago zer erakutsia.

## Urriari Txintxarri eguna

Urteko ekitaldirik garrantzitsuena urriari ospatuko dute Txintxarri eguna izango da. Egun hau berez berezia izaten bada, aurtengoa are bereziagoa izango da. Asmo ugari dituzte egun honetarako: “Xabier Sarasola konpositoreari kantu bat konposatzeko eskatu genion. Hitzak berriz, herriko bertso taldeko Felix Irazustabarrenak egin ditu. Kantu hau Txintxarri egunean estreinatuko dugu. Era berean, gustatuko litzai-guke Txintxarri abesbatzatik pasatako jendea bildu eta denok batera kantu batzuk kantatzea. Oso polita izango litzateke”. Egun handia izango da zalantzarik gabe. Bien bitartean, abesbatzako kideak ohiko entsaioetan biltzen dira, urte osoan zehar eman beharreko kontzertuak ongi prestatu nahi baitituzte, 50 urte hauetan egin duten bezalaxe. Zorionak! 

**ZALBIDE**  
Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.  
Ostirala, larunbata eta igande  
eguerditan irekita, iluntzetan  
egunero.

Zalbide baseria - Abaltzisketa  
Tel: 943 652 176



**SANTAMARIA**  
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantzirako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610  
TOLOSA



# Ziklox Garaialde

“Hasi ginenean Zikloxen %90a jendea zen, eta orain ere hala izaten jarraitzen duela konturatu gara”

*Alegiako talde Ziklox Garaialde, Alegiako talde Ziklox Garaialde... dio abestiak. Alegiakoa, alegiarra eta alegiarrena. “Taldea baino, kolektibo bat zen; ez ginen lau musikari bakarrik, beste hogeitaz biren, herrikoak, Tontokalekoak. Oso ondo babestutako taldea zen”. Eta sortu eta hogeita lau urtera horrek berdin-berdin jarraitzen duela frogatu ahal izan dute orain gutxi; kolektiboa handitu egin da gainera. Pasa den ekainaren 5ean Alegian eskaini zuten emanaldia aitzaki hartuta, Ziklox Garaialdeko lagunekin aritu gara tertulian.*

Amaia Goikoetxea

Hilaren 5eko kontzertuan bi belaunaldi batu ziren. Irudian Eñaut Zabala eta Iñaki Navarro.



Jendea gustura utzi omen zenu-  
ten kontzertuan...

**Iñaki Navarro:** Oso ondo atera  
zen, bai. Egia esan, neurri batean,  
Tontokalen jotzeko gogoz gelditu  
ginen; dena oso ondo antolatuta  
genuen, soinu probak eginda...  
Baina kontzertua hasi baino mi-  
nutu batzuk lehenago eguraldi  
txarra etorri zen, eta plazan jo  
behar izan genuen. Gainontzean,  
dena oso ondo atera zen, nabari  
zen jendea gogotsu zegoela...  
Oso ondo.

**Txarli Gesteira:** Jendea asko  
'enrollatu' zen, dantzan, abes-  
ten... Martxa ikusten zen, eta  
hori ikusita zu ere giroan sartzen  
zara erabat. Adin guztietako jen-  
de zegoen gainera, gazteak, hel-  
duak...

1995ean emana zenuten azken  
kontzertua. Gitarrei hautsak ken-  
du eta

entseguren bat edo beste egin  
beharko zenuten...

**I.N.:** Egia esan, proposamena  
egin zigutenean hasieran arraro  
samar ikusten genuen kontua,  
taldeko kideetako bat Amoro-  
ton bizi da gainera... Txarlik se-  
gituan esan zidan baietz, Unai  
eta Manexek ere ('fitxaje' berriak)  
lagunduko zigutela esan ziguten,  
eta, neurri batean, haiei esker  
hasi ginen entseguen orain  
hiru hilabete inguru. Zortzi bat  
entsegu egingo genituen, gutxi  
gora-behera..

**T.G.:** Kantuen hitzak-eta aurre-  
tik eginak genituen; aurreko kon-  
zerturako letrak gogoratzen ibili  
behar izan genuen, baina orain-  
go honetan hori behintzat egina  
genuen...

**I.N.:** Gero, kantuak nola osatzen  
genituen ere gogoratu behar  
izan dugu, beti ezberdin egiten  
baikenituen... hori ere pixka bat  
finkatu, eta abian jarri ginen.

'Fitxaje' berriak aipatu dituzue...

**T.G.:** Manex Elola, Unai Iraola,  
Gari Zubillaga, Martzel Nava-  
rro eta Eñaut Zabala. Azken bi  
hauek gaztetxoak dira orain-  
dik, eta hasieran nahiko urduri  
zeuden, ez baitaude horrela-  
koetara ohituta, baina beraien-  
tzat ere oso esperientzia polita  
izan da.

**I.N.:** Gainera gaztetxo hauek  
oso seguru joaten dira jo-  
tzera, gu baino askoz segu-  
ruago. Egin behar dutena  
ondo egiten dute, ondo  
ikasita joaten dira. Eta  
bestetik, herri honetan  
musika talde bat egiteko  
mama badagoela kontu-  
ratu gara, ea animatzen  
diren.

Atzera begira jarriz, 95eko  
kontzertu hura baino lehen de-  
segin zen taldea, ezta?

**I.N.:** Bai, bai, ordurako utzita  
geunden. Taldeak bi urte iraun  
zuen, 1986tik 87ra. Paulo, talde-  
kide izandakoa, 95ean hil zen, eta  
hari omenaldia egiteko jarri ge-  
nuen berriz taldea martxan.

Nola sortu zen taldea?

**I.N.:** Garai hartan mugimendu  
handia zegoen musikaren alo-  
rrean. Guk ere bagenekien zer-  
bait jotzen, edo gitarrak astintzen  
behintzat. Une hartan oso giro  
ona zegoen horretarako: gazte-  
txeetan zirkuitu dezentea osatua  
zegoen, herriko festetan ere jen-  
dea taldeak eramaten hasita ze-  
goen... Garai hartan 'matadero'  
bat zegoen Boulevarden, eta ber-  
tan aritzen ziren entseguak egi-  
ten Andoni Arratibel, nire anaia  
Mikel, Ibon Lopetegi... Guk ins-  
trumenturik ez genuenez, haiei  
kentzen genizkien batzuetan, eta  
horrela hasi ginen 'mataderon' jo-  
tzen. Gero, urte hartan txozna bat  
jarri genuen Boulevarden, dirua  
ateratzeko, eta lortutakoarekin  
gure lehenengo soinu-ekipoa  
erosi genuen: gitarrak, anpli-  
fikadoreak, bateria txiki bat...  
Aurrerago lokal bat izan genuen  
Kalebeheran, oso ona, garai ba-  
tean bizikleta tailer bat izanda-  
koa, eta hantxe egiten genituen  
entseguak. Hasiera hartan Joxe  
Manuel Garmendia Pitik, Paulo  
Garaialdek, Jabi Navarrok eta  
nik osatzen genuen taldea. Ho-  
rretan genbiltzala, egun batean  
Txaramako gaztetxetik deitu  
ziguten, bertan joko al genuen  
galdetuz, eta baietz esan ge-  
nien. Kontzertua baino astebate  
lehenago, ordea, taldeak orain-  
dik ez zuen izenik. Lokalaren  
kanpoaldean geunden, izenen  
bat okurrituko ote zitzaigun bu-  
ruari eman eta eman... Kartel  
handi bat zegoen han, "Ciclos  
Garaialde" zioena, eta huraxe  
hartu genuen, Ziklox Garaialde.

## ALDATZ Kristaldegia

Mota guztiako beirak  
Bainu eta dekoraziorako  
ispi luak  
Beirate artistikoak  
Dutxa-ixiturak

Tel./Faxa: 943 674 845  
kristaldatz@euskalnet.net  
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA

## Saldias Miguel

CORREDURIA DE SEGUROS  
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA

N. D.G.S. J.1759

Bizi-aseguruak  
Kotxe-aseguruak  
Istripuak  
Gaisotasunak  
Ospitalizazioak  
Subsidioak  
Lan-istripuak  
Enpresa txiki eta ertainak  
Erantzukizun zibila  
Etxe-aseguruak  
Denda-aseguruak  
Erreireoak  
Inbertsio fondoak

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea  
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462  
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
www.saldias-miguel.com

## Tolosa Bit

Informazioa, zerbitzuak  
Ordezagaitzak eta konpainiak  
Egitea eta jarduera-entzako  
Materiazaberiak

Oria kalea, 14-behea  
Tolosa - Tel.: 943 676 156  
Faxa: 943 016 857  
tolosabit@facilnet.net  
www.tolosabit.es



Taldea sortu zenean, bizikleta tailer bat izana zen lokal batean egiten zituzten entseguak, Kalebeheran. Handik hartu zuten izena.

Behin-behineko izena zen hasiera batean, baina horrekin gelditu ginen azkenean, jendeari gustatu egin zitzaion eta...

#### Gogoan al duzue lehen kontzertu hura?

**I.N.:** Bai, oso gogoan gainera. Oso kontzertu polita izan zen, xumea. Agertoki txiki-txiki batean jo genuen, berrogei bat lagun edo bilduko ziren, denak oso gogotsu... Nahiko urduri joan ginela gogoratzen naiz, denok, baina batez ere Piti. Gizarajoak benetan gaizki pasa zuen; tronpeta jo eta abestu egiten zuen, ez dakit nola moldatzen zen bi gauzak egiteko... Oso azkar jotzen genuen dena, eta abestu, eta tronpeta jo, eta berriz abestu... Karga handia zuen berak, jendearen aurre-aurrean egon behar zuen... Oso kontzertu polita izan zen.

#### Zer abesten zenuten?

**I.N.:** Hasieran The Clash, Madness, The Beat eta antzerako taldeen bertsioak jotzen hasi ginen. Horiek euskaratu egiten genituen; normalean Piti arduratzen zen horretaz, batzuetan Jabi ere aritzen zen. Eta gero,

geure abesti propioak ateratzen hasi ginen. Abestien hitzak ateratzen lan asko egiten genuen, esaten zenuenak garrantzi handia baitzeukan garai hartan. Batzuetan ez ginen ados jartzen zer esan behar genuen eta zer ez erabakitzerakoan, eta lan potoloa izaten zen. Egia esan, Pitik oso ondo antolatzen zituen hitzak.

#### Eta Txaramako lehen kontzertu haren ondoren?

**I.N.:** Guk nahi baino gehiago mugitzen hasi ginen. Batzuetan gainera agertoki garrantzitsuak izaten ziren, eta talde potoloekin jotzen genuen: Cicatriz, Korroskada,... Beti berdina aipatzen genuen: "Ez gaude horretarako prestatuta". Gurea ez zen ondo jotzea; jendeari parranda gustatzen zitzaion, martxa, eta horrela egiten genuen aurrera, batean hemendik eta bestean handik, Donostian, Gasteizen, Kilometroetan... Hemen inguruan jotzen genuen gehienbat, Tolosan, Txaraman, Ordizian... baina Gasteiza ere bizpahiru aldiz joan ginen, Donostian beste pare bat, Zarautzen...

#### Garai hartako grabaziorik ba al duzue?

**I.N.:** Ez, eta eskerrak, kar kar... Zarauzko zuzeneko bat badago grabatua, eta egia esan, penagarri samarra da. Oso anarkikoa zen dena... Gainera, garai hartan grabatzeko mediorik ere ez zegoen, gaur egun edozein kamera hartu eta audio kalitate txukuna lor dezakezu. Orduan oso zaila zen.

**T.G.:** Aurtengo kontzertua zela eta, Jabiri, Amoroton estudio txiki bat duenez, kantak txukun grabatzea bururatu zitzaion, jendeak entzun eta ezagutzeko, eta bidez batez, zerbait txukuna edukitzeko. Iñakik eta Jabik grabatu dituzte instrumentuak, eta Alegiako jendeak egin ditu koruak, oihaak... Dena den, oraindik bukatzeke dago, udarako egongo da prest.

#### Noiz arte jarraitu zenuten kontzertuen dinamika horrekin?

**I.N.:** 87ko urrian eman genuen azken kontzertua Zarautzen, Kilometroetan, eta uztea erabaki genuen. Gauza puztutzen ari zen. Hasieran dibertsio moduan hasi zena gero eta serioago bilakatzen joan zen, ordu gehiago eskatzen zuen, gauzak serioago egitea, diziiplina batean sartzea, eta konturatu ginen ez genuela horrelakorik nahi. Entseguetan eztabaidak ere sortu ziren... Ondo pasatzeko hasi ginen taldearekin, eta gure artean haserretu gintezkeela ikusten genuen. Gainera bagenekien taldearekin jarraituta ere oso urrutira ez ginela iritsiko, beraz, iruditu zitzaigun ez zuela merezi eta hobe zela pixka bat lasaitzea. Horregatik erabaki genuen uztea, eta Zarauzko hura izan zen azken kontzertua.

#### 1995era arte...

**T.G.:** Urte hartan sartu ginen Aitor Irazustabarrena, Iñigo Ba-



87ko urrian eman genuen azken kontzertua Zarautzen, Kilometroetan, eta uztea erabaki genuen.



lardi, Mikel Navarro eta ni. Beraz, urte hartan eman genituen lau kontzertuetarako honelaxe osatu zen taldea: Aitor kantari, Mikel bajuan, Jabi baterian, Iñigo tronpetarekin, eta Iñaki eta ni gitarrekin. Paulo hil ondoren, omenaldi bat egin nahi zitzaiola eta beraiekin joko ote genuen aipatu ziguten, eta berehala animatu ginen. Paulo urtarrilean hil zen eta martxoaren 5ean jo genuen gaztetxean. Eta gero, uztailean bitartean beste hiru kontzertu eman genituen: apirilean Korrikaren festan Alegian, ekainean Azpeitian eta uztailean berriz herriko festetan. Asmoa bat egitea zen, eta lau egin genituen azkenean.

#### Eta orain berriz bildu zarete. Herriko festetan beste bat?

**I.N.:** Lehen aritu gara horri buruz... Agian guk jo beharrean, hobe litzateke Manillares Iturriagak jotzea, sekulako arrakasta izan baitzuten, eta euren kontzertuan gure kantu pare bat edo sartzea...

**T.G.:** Agian kanturik enblematikoenak, Tontokale, Full Stop... Baina kontzertu osoa izan gabe... Ikusiko dugu.

**I.N.:** Gauza bat geratu zaigu garbi. Hasi ginenean Zikloen %90a jendea zen, jenderik gabe ez zen Ziklox. Lau kanta eta musiko batzuk, baina batez ere jendea. Eta orain ere konturatu gara horrela dela, jendeak jartzen duela giroa, jendeari berdin zaio zer jotzen duzun, baita mariatiak jotzen badituzu ere... Ziklox jendea da.





Txarli Gesteira  
Blogaria

Ikus-entzunekoen munduan aldaketa handiak ematen ari dira. LTDak (lurreko telebista digitalak) bazirudien iraultza ekarriko zuela telebistaren mundura, baina ez da horrela izan. Momentuz aldaketa teknikoak besterik ez du ekarri. Sarean ordea aldaketak ematen ari dira, eta hauek bultzatu beharko lituzke telebista kateak formula berri-tzailegoetara jauzi egitera. Gaur egun daukagun telebista zaharkitua dago.

## Telebista eredu berriak

Edozein momentu eta edozein tokitan, oso baliabide gutxiarekin eta irudimen askorekin, edozeinek informazioa bildu, sortu eta zabaltzeko deza ke sarean barna.

Sarean lan txukunak eta interesgarriak aurkituko ditugu, adibide gisa, duela hilabete pare bat edo, albistegi moduan sortutakoa. Internet eta teknologia berrien albistegia. Albistegia 2.0 telebista saioa. <http://albistegia.euskalherria.info> helbidean topatuko duzu. Saio motxak dira, 10 minutu ingurukoak, astean behin sareratzen direnak, baino saio interesgarriak benetan. Euskal komunitatean sortu eta garatzen diren proiektuak hartzen dituzte gaitzat, eta sareko eztabaiden hariak oinarri, sorkuntzari boza ematea dute helburu. Telebista partehartzailea izan

nahi du. Ikusleak mandoa utzi eta bertan parte hartzea bultzatu nahi duena. Albistegia 2.0, Hamaika Telebistaren egoitzan grabatzen dituzte.

Hamaika Telebistak, LTD eta internet bidez emititzen du, euskaraz. Hainbat enpresak sustaturiko egitasmoa da Hamaika Telebista. EKHE (GARA eta "Le Journal"), CMN TV, EKT, Euskaltel, Elkar eta Baint TV, eta Euskal Herriko tokiko hainbat telebistarekin sare bat osatzen du. Sare horretan dira Goiena (Arrasate), Goierri (Beasain), Erlo (Zarautz), 28 kanala (Tolosa) eta Oizmendi (Gernika), baino sarera hedabide gehiago batuko dira laster. Proiektu sendoa bilakatzen ari da. Bilbo inguruan sortu zen, baina Euskal Herri guztira zabaltzen ari da <http://www.hamaika-bilbo.tv/>

Estudioetatik kanpo ere, edozeinek baliabide gutxiarekin emititu dezake, eta zuzenean gainera. Zuzenean emititzeko aukera ematen duten hainbat gune daude, Livestream ([www.livestream.com](http://www.livestream.com)) eta Ustream ([www.ustream.tv](http://www.ustream.tv)) dira ezagunenetakoa. Bertan erabiltzaile bezela izena eman eta gero, kamera eta internetera konexioa duen ordenagailu bat izan ez gero, zuzenean emititzeko moduan izango gara. Irudi horiek zure web edo blogean txertatu ditzakezu gainera.

Sakeleko telefonoarekin ere emititu dezakegu, horretarako, qik.com helbide-tik aplikazio bat deskargatu zure sakeleko telefonora eta listo! Zuzeneko irudiak emititzeko prest egongo gara. ©

TARTE

TAK

San Joanetako batel estropadetan bandera jarriko da jokoan 1988. urtetik hona lehen aldiz

# San Joanetako **b**andera

1988. urtean jokatu zen San Joanetako azken bandera. Orduko udalak soilik San Joan egunerako jartzen zuen ibaia bertan arraun egiteko baldintzetan, eta arraunlariak ezin izaten zuten urte guztian entrenatu. Era honetan, ibaia baldintza egokietan jarri arte banderarik ez zela jokatu erabaki zuten. 2005etik hona egin diren San Joanetako batel estropadak zentzu errebindikatiboan ospatu dira. Aurten inauguratu den presa puzgarriak arraunketa eremu zabala bematzen du urte osoan. Ondorioz, egindako promesa bete eta bandera jokoan jarriko da berriro ere.

Leire Zubeldia

1983 eta 1987 urte artean istiluak sortu ziren San Joan estropaden inguruan. Udalak orduko egurrezko presa bota zuen Orian arrauna egiteko aukera kenduz. Soilik San Joan egunean atontzen zuten ibaia batel estropadak jokatzeko. Gainera, kirol probari ikusgarritasuna emate aldera kanpoko ontziak gonbidatzen zituzten, bertako arraunlariak bigarren maila batean utzita. Baldintza horietan estropadarik ez zutela jokatu erabaki zuten Tolosa-ko arraunlariak. Ohitura berreskuratu nahian edo, 2005ean San Joan egunez batelak uretara sartu ziren. Geroztik, estropada hau urtero errepikatu da, eta San Joan jaietako ekitaldi jendetsuena izan da gainera. Irabazleek txapelak jantzi dituzte orain arte, baina aurten txapelarekin ez ezik bandera astintzen ikusiko ditugu. Aldaketa honen eragilea presa puzgarria izan da.

## 80. hamarkadan bezala

Presak hainbat aldaketa eragingo ditu aurtengo San Joanetako batel estropadan. Batetik, lehengo estropada eremua berreskuratu dute: "aurreko urteetan baino 40 metro gehiago egin beharko dituzte arraunlariak, ibilbidea 10 metro luzeagoa izango baita. Bi joan etorri egin beharko dituzte, eta hiru zia boga hartu. Honenbestez, 1.340 metro egiten ziren lehen, eta orain 1.380 egingo dira", azaldu dute Anjel Larrañaga eta Iñaki Kruz TAKEko kideek. Bestalde, aurten bi batel paraleloan ikusteko aukera izango dugu. "Nolabait 80. hamarkadako estropada berreskuratu da eta horrek giroa sortu du arraunlari eta arraunzaleen artean", gaineratu dute. Jendea konparaketak egiteko gogoz omen dago, baina Anjel-en iritziz konparaketa objektibo bat egitea ezinezkoa da: "orain ura lehen



## Juan Larrazpu

eraikuntzak, s.l.

• Baserrietako igeltseritza eta egurrezko esirukturetan adituak.

• Etxeen berrikuntzak:  
- Fatxadak - Teilatuak - Sukaldeak - Baiñu gelak, etab...

Tfnoa: 665 718 966  
Jon Arruti (Orio)

# berriro jokoan


baino garbiagoa baitago, batelak hobeak baitira eta baita arraunlarien maila ere”.


## Ez da sailkapen estropadarik egingo

Estropaden antolaketa ere ezberdina izango da aurten. Ez da sailkapen estropadarik egingo: parte hartzen duten batel guztiek bi estropadak jokatu beharko dituzte eta azken sailkapenerako bi estropada horietan egindako denborak hartuko dira kontutan. “Lehenengo estropadan zozketa bidez osatuko dira taldeak. Bigarren estropadan berriz, lehenengo kaleko denborarik onena egin duen ontzia bigarren kaleko denborarik onena egin duenaren aurka lehiatuko da”. Lehenengo estropada ekainaren 20an egingo da, eta azkena San Joan egunean. Biak ala biak eguerdiko 12:00etan hasiko dira.



Bada beste berrikuntzarik: estropadetan parte hartzeko gutxieneko adina finkatu dute. Kadeteak izango dira arraunlaririk gazteenak, eta denek kategoria berean egingo dute arraun. Emakumezkoen lau ontzi uretaratuko dira eta gizonezkoek 8 batel osatu dituzte. Emakumezkoentzat eta gizonezkoentzat, bandera bana jarriko da jokoan. Irabazleek bandera eta txapela jantziko dute;

podiumekoek trofeoak, eta parte hartzaile guztiak bazkaltzera gonbidatuko dituzte. Aurten, ez da irabazleentzako sari ekonomikorik izango. “Estropada TAKEk antolatzen du Udalaren laguntza ekonomikoarekin. Laguntza hori ez da 80. hamarkadan udalak berak estropadak egiteko inbertitzen zuen diru kopurura iristen”. Ikuskizuna ordea, bai; garai bateko estropadetan adina edo gehiago sortuko da. 



Etxebarru zein kalerako lorak.

Lorategi lanabesak.

Lora legor eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -  
Tel.: 943 673 118 Tolosa

euskararen  
semaforoa  
euskararensemaforoa  
.blogspot.com

## irakurri entzun Ikusi

### Hamazazpikotan

Karlos Linazaroso

Haikuak bildu ditu idazle tolosarrak atera berri duen liburu hone-tan. Hortik datorkio izenburua, "hamazazpikotan". Bere neurri tradizionalan 5-7-5 metrika erabiliz idatzi ditu haikuok. Hiru gairen inguruan dabil: natura, maitasuna eta denboraren iragana. Denbora laburrez baina maiz hartu beharreko liburu.



### Baldi

Maddi Oihenart eta Juantxo Zerberio

Ez da zuberotarra eta tolosarraren lehenengo elkarlana. Elkar ondo ezagutzen duten bi musikariak ohiko lagun dituzten Txema Garces eta Pello Ramirez-ekin osatu dute laukoa. Instrumentu ugariaren soinua eta poesia dario Baldi lanari. Besteak beste, Bernardo Atxaga, Kirmen Uribe, Karlos Linazaroso, Itxaro Borda eta Leire Bilbao-ren letrak bildu dituzte.



### Sagarren denbora

Josu Martinez eta Txaber Larrea-tegi

Kristiane Etxaluzek eta Sao Tomen deportatuta daukaten Alfontso Etxegarai ihes-lari bizkaitarrak elkarrekin daramaten bizimodua du oinarri dokumental honek. Baionan eskaini zuten lehendabizikoz ekainaren 11ean. 19an Bilboko Capitol zineman eskainiko dute eta 24an Iruñeko Zabaldin. Uztailaren 1ean Etxegarairen sorlekua den Plentzian ikusi ahal izango da eta 3an Euskal Herria Zuzenean festibalean.



20

# Ekainaren 18tik uztailaren 2ra arteko hitzorduak

## Erakusketa

Aranburu jauregia

- Ekainaren 17tik aurrera: Kultur tailerretako ikasleen lanen erakusketa.

GKO Gallery

- Ekainaren 19tik 24ra: Pixel Pancho-ren erakusketa.

TOPIC

- Ekainaren 18tik aurrera: Muñecos animados – panpin animatuak.

## Ikuskizunak

Leidor

- Ekainak 18: "Tres sombreros de copa" kultur etxeko antzerki tailerraren ikuskizuna, 20:30ean.

TOPIC

- Ekainak 19: Azeriaren alegia emanldia Titiriteros de Binefár taldearen eskutik, 18:00etan.

## Hitzaldiak

Tolosako Udaleko Batzar

aretoa

- Ekainak 18: Mikel Telleriaren liburuaren aurkezpena eta hitzaldia, 19:30ean.

## Haur liburutegiko festa

Errota haur liburutegia

- Ekainak 19: Udako festa 18:00etatik aurrera.

## Tolosa Beantatuz

- Ekainak 18-19: Graffiti eta Mural lehiaketa, egunero 16:00etatik aurrera. Antolatzailea GKO Gallery.

## Azokak

- Ekainak 19: San Joanetako azoka berezia.

## Bedaioko mendi eta BTT mar- txa

- Ekainak 20: Irteera bedaioko frontoian. Oinezkoak 07:30ean eta txirindulariak 08:30ean.



## Abaltzisketako San Joan jaiak

ekainak 23, asteazkena  
- 21:30etan San Juan Sua

Jarraian, San Juan Dantza eta Soka Dantza herriko gazte-txoek dantzaturik  
- Ondoren, dantzaldia KUEPELA taldearekin

ekainak 24, osteguna (san jua-  
neguna)

- Goizeko 11:00etan Meza Na-  
gusia

- Jarraian, herriko gazteen triki-  
tixa emanldia

- Bitartean, jubilatuentzat ha-  
maiketakoa

- 13:00ean VI.Toka txapelketa  
herriko plazan

- Arratsaldeko 19:30tan triki  
bertso poteoa

- Gaueko 22:30tan erromeria  
TZ taldearekin

ekainak 25, ostirala

- Iluntzeko 20:30etan Barrio-  
tea herriko plazan (afaria nor-  
berak eramanda)

- 23:00etan Kontzertuak, Man-  
tisa, Stupenda Jones



ekainak 26, larunbata

- Goizeko 10:30etan VIII. Plater  
tiraketa lehiaketa Larraitzen  
herritarrentzat

- 11:30etan, ume jolasak herri-  
ko haurrentzat. Ondoren ha-  
maiketakoa

- Arratsaldeko 15:30etan VIII.  
Mus txapelketa Larrunari el-  
kartean

- Iluntzeko 21:00etan Sagardo dastaketa herriko plazan (afaria norbere kontura)



- Ondoren, bertso-saioa Iban Urdangarin eta Joxe Mundua-terekin eta dantzaldia ITZEL taldearekin

ekainak 27, igandea

- Goizeko 11:30etan Motozerra erakustaldia herriko plazan

- Arratsaldeko 18:00etan zaldi karrera Amezketatik Abaltzisketara

- Ondoren, barrenadareak arituko dira: Amezketatik eta Altzoko taldeak elkarren aurka lehiatuko dira.

- Jarraian, Elustondo trikitilariak

- 22:30etan dantzaldia Elustondo anai-arrebekin

- Atsedendian, herriko eskolaren aldeko txekorraren zozketa

uztailak 4, igandea (san pedro eguneko ospakizuna larraitzen)

- 12:30tan meza nagusia.

Ondoren, hamaiketako eta trikitilariak

- Arratsaldean berriro trikitixa iluntzera arte

## Tolosaldean IKASTN

Bizitza osoan zeharrekoko ikaskuntza

### Erantzun bikaina "Nazioarteko gaurkotasuna" mintegiak

216 lagunek parte hartu dute Jesús Torquemada nazioarteko adituak emandako "nazioarteko gaurkotasuna" mintegian

Apirilaren 12an hasi eta ekainaren 14an amaitu zen nazioarteak egun bizi duen egoera aztertzea helburu zuen mintegia. Jesús Torquemadak, egun dugun nazioarteko aditurik garrantzitsuenetako batek gidatu ditu saioak. Guztira 10 saio izan dira eta TOPICen izan dute lekua. Lehenengo saioetatik asistentzia altua izan da, eta Tolosaldea Ikastn oso gustura agertu da ikastaroak sortu duen interesagatik. Amerika, Europar Batasuna eta Ekialde Hurbileko egora landu dute. Asia eta Afrikako moduluak lantzea eta aztertzea geratzen da. Bi modulu hauek aztertzeko asmoz, datoren ikasturtean jarraipena izango du Jesús Torquemadaren mintegiak. Programan lantzeko falta diren moduluez gain, beste zenbait saio gehituko dira gori-gori dauden erungo gaiak jorratzeko.

<http://www.ikastn.com>

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia  
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA  
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa

Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678  
Posta-e: info@ikastn.com  
Webgunea: www.ikastn.com

### Goardiako farmaziak

#### Ostirala, 18

Santamaria I.  
(Nafarroa etorb. 2)  
Tolosa

#### Larunbata, 19

Echeveste Jesus M.  
(Gernikako arbola, 3)  
Tolosa

#### Igandea, 20

Azpiroz L.  
(Amaroz 9)  
Tolosa

#### Astelehena, 21

Bronte C.  
korreo kalea, 20  
Tolosa

#### Astearte, 22

Morant R.  
(Zabalarreta, 1)  
Tolosa

#### Asteazkena, 23

Tolosa M<sup>a</sup> Isabel  
(Nagusia, 7)  
Tolosa

#### Osteguna, 24

Ugarte M<sup>a</sup>T.  
Euskal Herria, 46  
Ibarra

#### Ostirala, 25

Olarreaga J.  
(Korreo kalea, 2)  
Tolosa

#### Larunbata, 26

Iturrioz I.  
(Euskal Herria, 3)  
Ibarra

#### Igandea, 27

Olarreaga M.  
(Martin J. Iraola, 10)  
Tolosa

#### Astelehena, 28

Santamaria I.  
(Nafarroa etorb. 2)  
Tolosa

#### Astearte, 29

Echeveste Jesus M.  
(Gernikako arbola, 3)  
Tolosa

#### Asteazkena, 2

Tolosa M<sup>a</sup> Isabel  
(Nagusia, 7)  
Tolosa

#### Osteguna, 30

Azpiroz L.  
(Amaroz 9)  
Tolosa

#### Ostirala, 1

Morant R.  
(Zabalarreta, 1)  
Tolosa

### Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketatik-Abaltzisketa-Albztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(Iarrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	Iurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhlitzailak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	Ertzantza	943 673 022
Ikaztegieta	Tolosa Gasa	943 675 320
Medikua	Lizartza	
Irura	Medikua	943 682 077
Osasun zentroa	Orendain	
Tolosa	Medikua	943 655 595
Anbulatorioa, Iarriald.	Orexa	
San Esteban, hitzordua	Medikua	943 682 228

Galtzaundi 326  
10eko ekainak 18



SANTA  
LUZIA  
GARAJEA

Grua zerbitzua  
24 orduetan

943 653 491  
943 653 874  
943 653 985  
943 806 020  
Santa Luzia, 1-TOLOSA

Errotulazioa & india  
**Vicente**  
www.rotulosvicente.com  
943 69 02 94  
taller@rotulosvicente.com  
Laskibar bailara 25, 1-04 atea  
20271 Iruia (Gipuzkoa)

**Beatriz**  
Dekorazioa  
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoio nordikoak
- Mantak  
(bat erositako beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia  
San Martin, 16  
943 425 886 - 943 420 187

Donostia  
Garibai, 8  
943 420 259 - 943 430 947

Tolosa  
Rondilla, 11  
943 670 615 - 943 671 149

## Muxutruk

### Lana

• Ordenagailuak konpondu eta egunera-tu ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621

### Etxebizitza

• Etxebizitza salgai Izaskun auzoan. 60 m<sup>2</sup>. 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. 645 718 536

• 60m<sup>2</sup>-ko pisua salgai Berazubín. Egon-gela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• "Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125"

• Etxebizitza abuhardilalatu salgai Montezkue auzoan. Bi logela, sala, sukaldea eta komuna. Kalefakzioa badu. Eguzkitzua eta bista onak. 685.765.855

### Salgai

• Spaniel txakur kumea salgai 678 923 512

• Espace bat saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. 605 717 858

• Igini markako akordeoia saltzen da. Tamainaz ertaina eta beltza. Berau eramateko gurditxo opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800

• Txekor idixko limosina zezenetarako salgai. 943.69.32.18 / 618.185.337

# Horoskopoa

Ekainaren 18tik uztailaren 2ra arteko aurreikuspena



## aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Oporrak gainean dituzu, atsedean hartzeko nahikoa beta izango duzu laster. Beraz ez zaitetz kekatu, gutxienez isilik egon zaitetz zu baino okerrago dauden aurrean. Zaindu beharrea aurkituko zara, erraz hartuko dituzu kiloak.



## taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Ez zaitetz alferrik kezkatu gauzak ahaztuzten zaizkizula eta. Ez da memoria txarra duzula. Hitz egiten dizutenean ez duzu arretarik jartzen eta hor dago gakoa. Eztarriko mina.



## gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Animoz baxu egongo da eta horregatik zure beharra izango du. Zure beharra izate horrek sendo sentituaraziko zaitu. Hausnartu ezazu: ez da sentimendu zintzoa. Zer ezkututzen da sentimendu horren atzean?



## cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Beldurtuta zaude baina ongi egin duzu lan eta emaitza onak jasoko dituzu. Azterketetako emaitza on horiez gain izango duzu zer ospatu egun hauetan. Albiste ona lagun artetik etorriko da.



## leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Aspaldiko lagun baten bisita. Nostalgiaz beteriko egunak biziko dituzue, eta zure bizitza nola aldatu den jabetuko zara. Galdu duzunagatik tristetu beharrea, irabazi duzuna baloratzen saiatu beharko zenuke.



## virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Itxura aldaketa horrekin inoiz baino ederrago egongo zara. Arrakasta izango duzu festa hauetan. Lan arloan ordea ezin arrakastaz hitz egin. Litekeena da albiste txarren bat jasotzea. Ez da espero ez duzun ezer izango.



## libra

Irailak 23-Urriak 22

Ondo merezitako oporrak hasiko dituzu laster. Ahaztu lan kontuak eta aspaldi honetan ia itotzeraino estutu zaituzten arazoak. Aprobetxatu uea eta disfrutatuz egiten duzun guztiarekin.



## scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Une egokia da etxean aldaketak egiteko. Irudimen aldetik bereziki aberats ibiliko zara egun hauetan, eta inspirazio hori baliatuz dekorazio atsegina lor dezakezu. Huskeria dirudi, baina pertsonalki asebeteta utz zaitzake.



## sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Konpromisoak, loturak izua eragiten dizu, baina benetan maitemindu egingo zara. Zergatik ez pausoa eman argi baduzu pertsona horrekin egon nahi duzula? Arriskatzen ez denak ez du ezer irabazten.



## capricornius

Martxoak 21-Apirilak 21

Begiratu ondo bazterrak, kalean zozela jarri begiak lurtean. Festetan ohikoa da diru-paperekin bat bilatzea. Ongi etorriko zaizu festa hauek poltsikoan sortuko dizuten zuloaren zati bat estaltzeko.



## aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Lanik ez dagoela eta kexuka ibili zara orain arte. Laster lan eskaera potolo bat jasoko duzu, udara guztian lan egitera behartuko zaituena. Albiste ona edo txarra den zuk erabaki.



## piscis

Martxoak 21-Apirilak 21

Ez zara osasunez batere ondo ibiliko: festetako jan eta edanak izango dira ondoezaren errudun. Zure onera itzultzeko ongi etorriko zaizu garbiketa bat egitea: mendia, elikagai garbiak...

si somos bilingües,

# Nontiendo®


Porqué no entiendes euskera.



A P A I N D E G I A

Ileko kolorea eman ez gero  
ezpainetako bat opari!

Korreoa kalea, 60 - 20400 Tolosa  
Telf. 943 116 456



aldama\_tapia  
aholkularitza

Foruen Etorbidea\_7  
20400\_TOLOSA Gipuzkoa  
Tel\_943 650 375  
Faxa\_943 655 206  
gtolosa@aldamatapia.com  
www.aldamatapia.com



harria gresak

25 urte zure bainugela janzten  
Neurrira egindako bainugelatan espezializatuak

Zelaeta, 1 Beasain (Gipuzkoa) Tel. 943 885 466  
Emeterio Arrese, 7 Tolosa (Gipuzkoa) Tel. 943 245 200  
www.harriagresak.com - beto@harriagresak.com

#Gipuzkoa

lan  
munduratzeko

herrilan  
eta azpiegiturak



teknologia  
eta berrikuntza

enpresei  
laguntzea

## Krisiaren aurkako 2010 Plana

### 100 milioi euro

Gipuzkoan badugu Plana:

Inbertsio publikoa azkartzea, en-  
plegua sortzea eta gure enpresei  
laguntzea, berrikuntzaren aldeko  
apustu irmoa dela medio.

#### OBRA PUBLIKOA ETA AZPIEGITURAK

Inbertsio publikoa azkartzea, lurralde osoak ahal-  
men handiko bide-sare ezin hobea izan dezan.

#### ENPRESEI LAGUNTZEA

Estualdetik ateratzeko, berregituratzeko eta proiektu  
lehiakorrek sustatzeko neurriak bideratzea.

#### ENPLEGUA SORTZEA

Lan-munduan sartzen laguntzea zailtasun bereziak  
dituzten taldeei eta enpresetako gizarte-balioak  
sustatzea.

#### TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

Zientzia eta teknologiako azpiegiturak garatzea eta  
berrikuntzaren aldeko apustua egitea, merkatu  
globalean lehiakortasun handiagoa izateko.



GIPUZKOA  
zurekin, aurrera >



**28 kanala**  
Tolasaldea telebista

28 kanala LTDan ikusteko  
UHF 24 kanala sintonizatu



[www.28kanala.com](http://www.28kanala.com)